## GOSKIJAK

# NIRE EŔIJAN

Ba-gagoz eŕijan.
Oŕtxe begi-auŕian
baseŕija zaintzen daun mendi zoŕotza.
Lotu da bultzija.
Bidera jatsiŕa.
nasaŕuten yat bai, benetan bijotza.

Aŕotzez beterik egon da bultzija.
Itz lotsabakuak, abesti zantaŕak,
nai ta nai ez, entzun biaŕ ixan-dodaz
Jainkua'ŕen auŕka birauaz nastauta.

Bere nosu leunaz gabeko axiak
otziáuten daust bekoki berua.
Bultzijan, diaŕak zarata ta kia.
Emen, atsedena gentzea ta lua.

"Tut" luzia eginda bustan balztun aŕa
ba-dua baŕiro. Begi biribiŕak
zabalak daruaz, Bultzija juanda,
baseŕira ostera etoŕi da ixiŕa.

¿Zer dauko gau onetan, neure eŕijak?
Ikusten dot iñoz baño argijagua.
Goi-aldian iŕetargija beteta
estaltzen dau, miesa miakaz, lañuak.

Lengo eurijak, busti dauz zidoŕ-bidiak,
goiko argijak orain dagoz disditsubak.
Laño-artian, gora eginda abaŕ igeŕak,
neure eritxiz zugatz zaŕak egaz duaz.

Deritxat garbijagua,
deritxat zurijagua
gau onetan, ilda lez dagon eŕija.
Bere goguak, gorantza
igoteko dauko antza
damuturik garbai-negaŕez bustija.

UTAŔSUS.

